

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA - 2017**

---

Joan den uztailaren 24an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazio txostena onartu zuen, 2017ko ekitaldiari dagokiona.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du inongo salbuespenik azpimarratu gabe.

2016an egin zuen moduan, finantza egoerak 2017an ere bilakaera positiboa izan du. **Aurrezki gordinak gora egin du, izan ere sarrera arruntek gastu arruntek baino gehiago egin dute gora**, foru aldundien ekarpenek batik bat. Gastuen igoera batik bat **osasan eta hezkuntza** arloetan izan da. Inbertsio garbiek ere gora egin dute (trenbide-unitate berriak, alokairutarako etxebizitzak, Osakidetzan inbertsioak, autobus elektrikoak Gasteizen...). Ekitaldiko emaitza arrunta aski izan da inbertsio garbia finantzatzeko. **Diruzaintza Geldikin Erabilgarriak** gora egin du zuzkidura eta doikuntzek behera egin dutelako.

Txostenak adierazi du EAEn Administrazio Orokorrek **bete dituela** 2017an **aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren helburuak**. Honela, bada, gastu konputagarria % 2,8 hazi da, baina 2017ko ekitaldirako muga % 2,1 zen.

Txostenak aurreko ekitaldietan bezala **lurralde historikoaren arabeko gastu eta sarrerei buruzko informazioa** jasotzen du, urteko kontuetan ez baita informazio hori ematen. Lurraldearen arabera sailkagarri den 2017an guztira aitortutako gastutik (nagusiki finantza gastuak eta zor publikoa salbuetsita), % 27 Arabari dagokio; % 46 Bizkaiari; eta % 27 Gipuzkoari. Diru-sarreretan (zor publikoari dagozkionak salbuetsita), berriz, % 16 Arabari dagokio, % 51 Bizkaiari eta % 33 Gipuzkoari. Ehuneko hauek bat datoz Foru Aldundi bakoitzari ekitaldian jasotako zerga sarreretatik dagokion ekarpenen ehunekoarekin.

Txostenak ondorioztatu du EAEn Administrazio Orokorrek zuzentasunez bete duela ekitaldian ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz **unean**

**uneko salbuespenak** azaleratu diren **administrazioko kontratazioan** (espediente bat premiazko prozedura baliatuta izapidetu da, horretarako baldintzak bete ez arren; eta publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitutako espediente batean lehia salbuetsi da behar hainbat justifikatu gabe). Gainera, Jaurlaritzaren Kontseiluak 57,7 milioi euroren gastuak baliokidetu ditu, Ekonomia Kontrolerako Bulegoak aurkako txostena jaulkia zuela, batik bat zerbitzuak dagokion kontratu espedientea bideratu gabe egiteagatik).